

Jarri lasai eta musikaz gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maidar Albes** eta **Ugutx Usandizaga**



ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu kirolgune berrixan proiektua?




JAIONE OTAÑO
47 urte



JORGE ORTIGOSA
23 urte




KONTXI BELATEGI
50 urte



PEDRO ZUMELAGA
46 urte



MARINO GONZÁLEZ
56 urte



ANTONIO IZA
73 urte

Ez jat ondo pentsatzen. Bat nator ni Igeri Elkartekuen kejiakin. Igerileku txiki-xagua egin bihar dabe, eta hori eragozpena bada, ba, goial berrero pentsau bihar-ko litzake.

Gaiñetik bakarrik ezagutzen dot gaixa, baiña igerileku olinpikua kentzia ez jat oso ondo pentsatzen. Igeri Elkartekuek keju egin die eta goial arrazoia eukiko dabe hareik.

Igeri Elkartekuen kejiakin bat egitten dot, eta firmatu dot haren eskarixa. Kanpoko igerilekua ondo dago-la pentsatzen jat; egokitzia dauke dagona, Gipuzkoa-ko onena da-eta kanpokia.

Ez jat ondo pentsatzen. Kanpoko igerilekua aproposa dala uste dot. Nere ustez, dagon hori mantendu egin-biharko litzake, eta barrukua egokittu. Baiña kanpokia mantendu.

Hobetzia dan dana ondo dagoela uste dot. Kanpoko igerilukuetara jente asko juaten da eta txiki geratzen dabizela pentsatzen jat. Horretxegatik, ondo pentsatzen jat proiektua.

Ez jat oso ondo pentsatzen. Kanpoko igerilekua ondo dago, eta barrukua txukuntzia nahikua dala uste dot. Dirua biharra dagon tokittan gastau bihar dala pentsatzen jat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUBIETA KALEKO ARGITERIA Zubietan kalean ez ei dago argi askorik. Irakurle batek esan digu hori, nahiko haserre, gainera. Haren kexa da oso farola gutxi dagoela Zubietan, eta gauez ez dela batere eroso handik igarotzea. Duela gutxi frontoian jarritako farolak ere ekarri dizkigu gogora, eta galdera bat egin dio Udalari: "Lehen eta bigarren mailako herritarrak daude herrian?". /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /12

Erramu Zapatuko Feria

Bihar izango da. 09:30etik aurrera egongo da ikusgai, eta gauean, bertso saioa egingo dute Udal Pilotalekuan.

Gorlako XVIII. Igoera

Iñigo Urretxua bizkaitarrak (Olarra Consultec) irabazi zuen martitzenean Gorlako Igoera.

Antzerki ikastaroak

Virago taldeak antolatu ditu. Nondik norakoak Pedro Muxika arduradunak azaldu dizkigu.

ASTEKO DATUA

110

ABELBURU EGONGO DIRA ERRAMU ZAPATUKO FERIAN

Bihar, Erramu Zapatuko Feria egingo da eta ehun eta hamar abelburu inguru egongo dira Ibargarai kalean: laurogei bat erakusketan egongo dira eta gainerakoak enkantean.

BESTEKE ESANA

“ Eskuetan arazoak eduki ditut eta ezin izan naiz entrenatu bi astean. Pixka bat zaindu nahi izan

ditut. Orain hobeto daude, baina oraindik ere ez nago nire onenean. Ez naiz kexatzen. Datorren egubakoitzean jokatzeko moduan egongo naiz. Sufritu egin beharko da, baina ez dut inongo arazorik izango. Kailua guztiz gastatu beharko dut partida irabazteko. Irabazten baldin badut, zazpi egun jarraian jokatu beharko dut eskuak oso ondo ez ditudala. Baina arazo hori irabaziz gero bakarrik izango dut. Hortaz, lehenengo lana egubakoitzeko partida irabaztea izango da, eta jakin badakit ez dela guztiz erraza izango.

ARITZ BERRAONDO
Diario Vasco/02-03-20

BERAIEKDIÑOÈ/ Martin Garitano



Mobbing

Mobbing izen ingelesean ezagutzen da gaur egun lantokian langile bat deseroso sentitzeko erabiltzen ari den teknika. Deseroso sentitu eta, horren ondorioz, bere kabuz lantokia uztea eskatzera behartzeko, noski. Kanporatzearen era modernoen, alegia. Eta merkeena. Mobbing, hitza ingelesean, praktika, edonongoa. Mobbing delako hori, lanean erabiltzen den tortura delakoan nago, azken finean soldata baten truke bere lan ahalmena saltzen duen langilearen borondatea apurtzeko erabiltzen den biolentzia. Urte luzez balioa izan duen lana bapatean baztertu eta baliogabetzeko tortura zuri eta sofistikuaren erakusgarri.

Mobbing, hitz benetan madarikatua haren eragina ezagutzeko aukera tristea izan dutenentzat. Hitza madarikatua, eta hitzaren ostean ezkutatzen den edukia are eta madarikatuagoa, langileriaren kon-

tzientzia astintzeke langileria- ren beraren eskubide guztiak zapuzten dituen tresna.

Orain arteko ikerketek "mobbing" delako horren kasuak Estatu Batuetan edota bihotziki gabeko Europako estatuetan kokatu dituzte. Langilearen aurkako presio bideak hemen,

gure artean, gure sindikatu indartsuen aurrean, kontzientzia handiko gure Euskal Herri honetan inongo lekurik ez zuelakoan geunden. A ze nolako mitoa! Hemen, liberalismoaren eremu honetan ere "mobbing" horren biktima uga-

ri dauzkagu. Kapitalak, kapitala handitzearen premiaz mugitzen den munstroa ez du mugaz ezertxo ere ulertzen, eta gutxiago aberri askez-gizon eta emakume askez osatutakoaz-horrek ez baitu etekinik ematen. Mobbing, hitz galanta ikerketa munduan dabilzanendako, baina madarikatua ekintza horren eraginez hurko galdu dutenentzako. Madarikatua hitza, madarikatuagoak horri esker aberasten direnak.

“Mobbing, lanean erabiltzen den tortura da. Langilearen borondatea apurtzeko biolentzia”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 23**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 24**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 25**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 26**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 27**
PUY. Barrenkale 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 28**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |
| URTE-MEZAK | |
| Santa Marina | |
| Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean. | |
| San Pedro | |
| Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean. | |

OHARRAK

IMPRECIO BAZKIDE OHIEN AFARIA APIRILAREN 20AN
Impreci kooperatibako bazkide ohiek afaria egingo dute apirilaren 20an Zabala jatetxean. Izenematea Zabalan, Mujika jantzi dendan edo Zubietako Arantxa dendan, apirilaren 13ra arte.

1956KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1956ko kintoek -aurten 67 urte beteko dituztenek- bazkaria egingo dute domekan, martxoaren 24an, Zarauzko Aiten Etxe jatetxean, 14:30ean. Aurretik, frantziskotarren elizan hildakoen omenezko meza izango da, 12:30ean. Bazkaria joan nahi duten bergararrek Inaki Arregiri dei diezaiokete, 943 76 11 73 telefono zenbakira.

1951KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1951ko kintoek bazkaria egingo dute apirilaren 14an Ordiziako Martinez jatetxean, 14:30ean. Aurretik, 12:30ean, hildakoen omenezko meza izango da Jasokunde Amabirjinaren parrokiari. Izenematea Martinez jatetxean (943 88 06 41).

ODOL ATERATZEA
Eguaztenean, martxoaren 27an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Zapatu arratsaldean, barruko jolasak izango dira Kartzelan eta domekan, karta txapelketak.

ARRATERA IRTEERA
Apirilaren 27an eta 28an, Arratera irteera izango da. Izena emateko epea apirilaren 22an bukatuko da. Plaza mugatuak. 27 euro.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Erretiratuen egoitza handitzeko lanen hasiera


San Joxepe erretiratuen egoitza handitzeko lanak hasi zituzten 1992ko martxoan. Lanek 30 milioi pezetako aurrekontua izan zuten. Taberna handitzeaz gain, bolatoki berria eraiki zuten eta igogailua jarri zuten, ezinduei eta ibiltzeko zailtasunak dituztenei gauzak errazte aldera.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Trontzua"

Okela edo arrain zati eder ete lodia. -Trontzoik ederrena beretako artu zeban da neri gizenak eta girixak besteik ez.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 17	4 °C
MAXIMOA Martitzena, 19	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14,1 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 13	21 °C 10 °C 5,9 l/m ²
Eguena, 14	16 °C 5 °C 2,5 l/m ²
Egubakoitza, 15	16 °C 6 °C - l/m ²
Zapatua, 16	16 °C 10 °C 5,7 l/m ²
Domeka, 17	15 °C 4 °C - l/m ²
Astelehena, 18	16 °C 10 °C - l/m ²
Martitzena, 19	24 °C 14 °C - l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'BLACK HAWK DERRIBADO'

ZUZENDARIA: RIDLEY SCOTT. AKTOREAK: JOSH HARTNETT, EWAN MCGREGOR.

HARIA. 1993an Somaliara bidali zituzten soldadu estatubatuarren gorabeherak kontatzen dira Ridley Scott-en azken filmean.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



'EN TIERRA DE NADIE'

ZUZENDARIA: DANIS TANOVIC. AKTOREAK: BRANKO DJURIC, RENE BITORAIAC.

HARIA. Danis Tanovic zuzendatutako bosniarraren filmak, besteak beste, gidoi onenaren saria jaso zuen Cannes-en, eta ikusleena Zinemaldian. Balkanetako gerraren inguruan ikuspegi bitxia eskaintzen du. Oscarretarako izendatua.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

FERIA/ Feria 09:30ean zabalduko dute eta hainbat gunetan banatuko da: Seminarioko patioa, Ibargarai, Irala, Simon Arrieta eta Fraiskozuri

Ganadua, Eusko Labela eta artisauak Erramu Zapatuko Feriako ardatz bihar

MONIKA BELASTEGI

Erramu Zapatuko Feria izango dugu bihar protagonista nagusi. Goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera, abelburuak, Eusko Labelako produktuak eta makinaria ugari ikusteko aukera izango dugu. Horrekin batera, gauean, bertsolari puntakoenen saioa izango da.

Goizeko bederatzi eta erdietan irekiko dute Erramu Zapatuko Feria, eta eguerdira arte iraungo du. Abelburuak, Eusko Labelako produktuak eta makinaria izango dira nagusi. Eta horrez gain, hainbat artisau eta talogile ere izango dira Bergaran bihar. Guztira 160 salmahai inguru ikusteko aukera izango dugu.

Ganaduari dagokienez, 110 buru inguru izango dira: laurogei inguru erakusketan egongo dira, eta gainerakoak, enkantean. Arizari dagokionez, hiru egongo dira: Limosina, Blonda eta Pirenaika. Eta horrekin batera, 13:00etan, Pirenaika arrazako bigantxen enakantea ere egongo da. Bestalde, 30 bat ardi latxa ere egongo dira. Horiek guztiak Ibargarai kalean egongo dira ikusgai.

Abelburu horiez gain, animalia gehiago ere izango da ferian, basahuntzak, hauntz enaioak, basurdeak eta zezen txikiak, besteak beste. Horiek guztiak Seminarioko patioan egongo dira ikusgai. Eta makinaria ere toki berean izango da, Seminarioko patioan, hain zuzen ere.

Eusko Labelako produktuei dagokienez, Seminarioan egongo dira horiek ere. Sei salmahai jarriko dituzte, eta denetarik ikusi, dastatu eta erosteko aukera egongo da: ezitia, ogia, gazta, marmelada eta gozoak, besteak beste. Bestalde, biharko feria alaitzeko, trikitilariak ibiliko dira gune guztietan zehar.

HIRUROGEI ARTISAU INGURU HERRIAN BARREIATUTA

Artisauak ere ugari izango dira bihar, hainbat gunetan banatuta. Batetik, hogeita hamar artisau inguru egongo dira San Martin plazan. Honako hauek, besteak beste: forja, zeramika, damaskinatua, saskigintza, taila, frontoi pilota eta larrua lantzen duten artisauak.

Horrekin batera, Ibargarai kalean beste horrenbeste egongo dira, eta artisauekin batera, bestelako hainbat salmahai ere izango da ikusgai.

Era berean, janariarekin lotutako beste hainbat postu ere izango dira, bai Ibargarai kalean baita Herri Lagunak kalean ere. Eta talo, pintxo, sagardo, txakoli eta antzerakoak saltzeko postu eta txosnak ere egongo dira Seminarioan, Fraiskozuri



ARTXIBOA

Iazko ferian ez zen ez ganadurik ezta ardirik ere egon, sukar aftosoa zela eta segurtasun neurriengatik.

Ganaduari dagokienez, 110 buru inguru izango dira ikusgai Ibargarain

plazan, Simon Arrieta plazan eta Domingo Irala kalean.

TXORIMALO LEHIAKETA

Txorimalo Lehiaketa ohikoa egin zaigu Erramu Zapatuko Ferian. Jardun Euskara Elkarteak anto-

Eusko Labelako postu ugari ere izango da Seminarioko patioan

latzen du, eta aurten ere, talde ugari hartu dute parte, hogeita hamabi taldek, hain justu ere: hamalau eta hirurogeita bost urte bitarteko bi taldek, hirurogeita bost urtetik gorako talde batek eta gainerako hogeita bederatziak,

Artisautzari dagokionez, 60 artisau inguruk erakutsiko dute euren lana

hamalau urtetik beherakoak.

Txorimalo Lehiaketan parte hartzeko, ez da txorimalo polit eta orijinala bakarrik egin behar. Txorimalo bakoitzak bere esalditxo ere eraman beharko du, txorimaloaren gaiarekin

lotura duena, euskararen aldekoa edo Erramu Zapatuarekin identifikatzen den esaldia, hain justu ere.

Hori guztia biharko azokan ikusi ahal izango dugu. Hogeita hamabi txorimaloak Ibargarai kalean egongo dira ikusgai, 11:00etatik aurrera. Sari banaketa, berriz, 12:30etan egingo dute, toki berean.

Horrekin batera, 13:30ean, bertsolariak jardungo dute Seminarioko patioan, Azpillaga eta Agirre, hain justu ere. Eta arratsaldean, 17:30etik aurrera, parte hartu nahi duten ume guztientako jokoak izango dira San Martin plazan.

BERTSOLARI PUNTAKOENAK UDAL PILOTALEKUAN

Bukatzeko, Erramu Zapatuko Feriako egitarauak emango duen azkeneko ekitaldia gauean izango da. 22:15etik aurrera, bertso jaialdia antolatu dute, eta bertsolari puntakoena izango dira. Bertso jaialdia Udal Pilotalekuan izango da, eta honako bertsolari hauek hartuko dute parte bertan: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Madalen Lujanbio, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze. Horrez gainera, gai jartzaile lanetan Nikolas Zeberio ibiliko da.

Feriagatik, gidariak kontuan hartzekoak

Zapatuan feria izango dela eta, Udaltzaingoak gidariak kontuan hartu beharreko oharra kaleratu du; izan ere, hainbat aldaketa eragingo ditu feriak zirkulazioari eta aparkalekuei dagokienez.

Postuak Ibargarai, Herri Lagunak eta Irala kalean jarriko dituzte, eta ondorioz, kale horietan aparkatuta egoten diren autoak 06:00etarako kenduta egon beharko dira. Horrez gain, Ibargarai kalea zirkulazioari moztuta egongo da eta normalean handik igarotzen den zirkula-

zioa Zurradero eta Matxiategi kaleetatik desbideratuko da.

Horrek guztiak trabak eragingo ditu erdialdeko zirkulazioan, batez ere. Hori dela eta, Udaltzaingoak gomendatu du, ahal den neurrian, bihar automobilik ez erabiltzea erdiko kaleetan ibiltzeko.

Aldi berean, gogorazi nahi du horrelako egunetan diru-zorro lapurrak agertu ohi direla, eta horregatik, eskatu du jendea pilotzen den guneetan arretaz handiz ibiltzea, batez ere, poltsekin.



Geyser Gastech enpresako langileek kale bilkura egin zuten eguaztanean MCCko egoitza nagusiaren aurrean.

SAIOA OJANGUREN

ENPRESA/ Lan etenak egin dituzte soldata duin baten alde

Kooperatibistak ez diren Geyser-ko langileak, greban

MONIKA BELASTEGI

Geyser Gastech enpresako langileen ia erdiak lau orduko lan etena egin du aste honetan; eguazten eta egubakoitzean, hain justu ere. Greba kooperatibista ez diren langileek egin dute. Lan berbera eginez kooperatibistek baino gutxiago kobratzea salatu dute.

Eguaztanean egin zuten lehenengo lanuztea Geyser enpresako langileek, eta bigarrena gaur, egubakoitza, egitekoak ziren.

Berrehun eta berrogeita hamarretik gora langile daude hantxe: 200 inguru kooperatibistak dira eta gainerako 150 inguru, aldiz, ez, besteren konturako langileak baizik.

Bigarren multzo horrek egin du, hain justu, greba. Soldata duinago baten alde eten dute lana, izan ere, kooperatibistena moduko lanpostua eta lan-jarduna izan arren, gutxiago kobratzen dutela salatu dute Geyser enpresako langile horiek.

Aurtengo Enpresa Ituna negoziatzen dihardute egunotan, eta

besteak beste, honako eskariak egin dituzte langileok: aurtengo igoera %6,5 izatea, errelebu plusa kooperatibistekin partekatzea eta lan-jarduna 10 ordu murriztea. Lerro hauek idazteko unean, oraindik ere zuzendaritzatik erantzunik jaso gabe zeuden langileak.

Hori horrela, eta bestelako erantzunik jaso ezean, euren jarrera gogortzeko asmoa azaldu dute. Eta iragarri dute astelehenan, hilaren 25ean, eta martitzenean, hilaren 26an, egun osoko lanuzteak egingo dituztela.

Pilak botatzeko sistema aldatu egingo du Mankomunitateak

MONIKA BELASTEGI

Orain arte, paper edukiontzari lotutako kutxa txikietara bota behar genituen pilak. Horiek kendu, eta aurrerantzean, pilak saltzen dituzten dendetan utziko dituzten kutxetan sartu beharko ditugu pilak.

Pilak batzeko edukiontzia jarriko ditu Debagoieneko Mankomunitateak pilak saltzen dituzten komertzioetan.

Gaur egun kalean dauden edukiontzia urdin handiei (paperarendako edukiontzia, hain justu ere) erantsitako armairutxo

batera bota izan ditugu pilak. Pilak batzeko sistema horrek, baina, armairutxo horiek mantendu eta husteko arazoak sortzen ditu, Debagoieneko Mankomunitateak bidalitako ohar batek jasotzen duenez.

Hori dela eta, sistema aldatu egingo dute. Martxoaren 11n hasiko dira aldatzen, eta helburua da pixkanaka oraingo armairutxoak kentzea, beste batzuenagatik ordezkatzeko.

Berri horiek kutxa txiki batzuk izango dira, eta ez dira kaleko edukiontzietan itsatsita egongo, pilak saltzen dituzten dendetan baizik. Gero, Deba-

goieneko Mankomunitateko langileak pasatuko dira dendetatik pilok jasotzera, behar den beste-ko maiztasunarekin.

TRASTE ZAHARRAK ATERATZEKO EGUNA Apirilaren 2an jasoko dituzte berriro ere etxeko traste zaharrak. Bilketa gauez egingo dute. Hori horrela, trasteak 20:00etatik 22:00etara bitartean atera beharko dira, eta zaborrendako edukiontzien ondoan utzi. Trasteok uzteko orduan, baina, ez da komeni edukiontzia kontra lagatzea, horrek eragotzi egiten du eta zaborrendako edukiontzia husteko lana.

Iaz, 3.103 zirkulazio-isun jarri zituen Udaltzaingoak herrian

MONIKA BELASTEGI

Udaltzaingoak 2001. urteko memoria kaleratu du. Txostenan jasotzen denez, iaz, 3.103 isun jarri zituzten zirkulazioa urratzeagatik, horietatik, 1.500 bergarrei. Bestalde, herri barruan 126 istripu izan ziren.

Horiek, Udaltzaingoak iazko memoria jasotzen dituen datuetako batzuk ditugu.

3.103 isun horiek herri barruan egindako zirkulazio urraketa batenagatik jarri zituzten. Horietatik, 1.500 Bergarako biztanleei dagozkie, eta gainerako 1.603ak kanpoko gidariei jarri zizkieten.

Bergarako Udaltzaingoak bergarrei dagozkien isunak bakarrik tramitatzen ditu, eta hori, dirutan, 22.600 euro inguru da (3.765.000 pezeta). Momentuz, isunen erdia ordaindu dituzte. Bestalde, isun gehien erdialdeko kaleetan jarri dituzte udaltzainek:

Ibargarain, Irizarren, Matxiategin eta Ariznoan, hain justu.

Ibilgailuekin jarraituz, txostenak jasotzen duen beste datuetako bat ibilgailu kopurua da: Bergaran 7.708 ibilgailu daude errolatuta, horietatik, 6.776 turismoak. Udaltzaingoaren memoriak dioenez, urtetik urtera gorakada handia nabari da ibilgailu kopuruan. Iazko erroldan, esaterako, 2000. urtean baino 336 ibilgailu gehiago zeuden. Horrela, biztanle bakoitzeko 0,45 ibilgailu dagozkigu bergararroi.

HERRI BARRUKO ISTRIPUAK, BEHERA

Herri barruan izandako istripuak ere jasotzen dira txostenetan. 126 gertatu ziren iaz, duela bi urte baino zazpi gutxiago: 84, ibilgailuen arteko kolpeak izan ziren, bost, oinezko harrapatzeak, eta 35, zuhaitzen, farolen, eta abarren kontrako kolpeak. 27 lagun zauritu ziren, 24 arin eta hiru larri, eta istripu gehienak Amillagan eta Ibargarain gertatu ziren.



Herri erdialdean 126 istripu gertatu ziren iaz, duela bi urte baino zazpi gutxiago.



Hainbat komertzioetan irudikoa moduko kutxak jarriko dituzte pilak botatzeko.

ELKARRIZKETA

BIXENTE MURGOITIO/LA VERGARESAKO ARDURADUN OIHA

“Bizitza osoan fijatuko naiz autobusetan; hori ez dut galduko”

MONIKA BELASTEGI

Joan den zapatuan, La Vergaresa zeneko langileak elkartu eta bazkaria egin zuten Altzasun. Elkartze hori lankideetako bat omentzeko ere aprobetxatu zuten: Bixente Murgoitio, hain justu, batu zirenen arduradun izandakoa.

Pozik, jasotako omenaldiarekin?

Egia esan, sorpresa izan zen. La Vergaresan lanean arituta-koen bazkarira nindoala uste nuen. Eta ez nekien omenaldia egingo zidatenik.

Hala ere, poztekoa da horrelako omenaldia jasotzea. Bazkarian elkartu zirenen arduradun izan nintzen urtetan, eta ez dakit, bada. Nire lana ahalik eta ondoen betetzen saiatu nintzen. Pentsatzen dut lan haren errekonozimendua izan dela. **Noiz hasi zinen La Vergaresan lanean?**

Enpresan sartu nintzenean, hogeita bat urte nituen, eta berrogeita bi urte eman ditut hantxe. Horietatik, hogeita bost pasatxo, arduradun.


Enpresan sartu zinenean zein lan egiten zenuen?

Kobratzaile sartu nintzen. Gidariaren eginbeharra autobusa eramatea bakarrik zen, eta kobratzailearena, berriz, autobusean sartzen zirenei billetea kobratzea. Bidaia osoa egiten genuen kobratzaileok, eta geldialdi bakoitzean igotzen zirenei kobratzen genien. Gaur egun, ez dago kobratzailearik. Orain urte asko, Arrasaterako bidaiak 65 pezeta zentimo kostatzen zuen. Jende asko ibiltzen zen autobusean, autorik ez zegoelako.

Zuk zein bidaia egiten zenuen?

Denbora gehien Eibar-Gasteiz egin nuen, eta Eibar-Iruñea inauguratu ondoren, arduradun izendatu ninduten.

Hasierako autobusak ere ondo gogoratuko dituzu.



MONIKA BELASTEGI

“La Vergaresan lanean hasi nintzenean, sei autobus zeuden. Utzi nuenean, berriz, 79”

Bai. Ni hasi nintzenean, bat, bi, hiru, lau, bost eta sei autobusak zeuden. Garai hartan, zenbakiagatik ezagutzen genituen autobusok; sartzen ziren txandan jartzen zizkieten zenbakia.

Nik enpresa utzi nuenean, 79 zenbakidun autobusa zegoen.

“Kobratzaile hasi eta gero enkargatu egin ninduten. Guztira, 42 urte eman nituen enpresan”

Jakina, ordurako bata, bia... erretiratu zeuden, baina zenbakia esanda bakarrik oso ondo gogoratzen ditut guztiak.

Oraindik ere fijatzen zara autobusetan?

Hori ezin izango dut inoiz galdu, beti fijatuko naiz.

LABUR

Astelehenean, osasunaren autogestioan sakontzeko ikastaroaren azken saioa

Astelehenean, hilaren 25ean, amaituko da osasunaren autogestioan sakontzeko Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak antolatutako dibulgazio eta prestakuntza ikastaroa.

Azkeneko saio horren gaia honako hau izango da: *Autogestio-natutako dibertimendua: gure bizitza hobetzeko beste modu bat*. Bizi eta gozatu egin behar dela azalduko dute ikastaroko arduradunek, Sumendiko kideek, eta horretarako jolas lasaigarri eta kooperatiboen beharrez ohartaraziko dituzte parte hartzaileak. Hitzaldi hori kultura etxean izango da, 19:00etan.

Aste Santuan La Plagnera eskiatzera joateko irteera antolatu du Pol-Pol taldeak

Pol-Pol mendizale taldeko eski sailak Aste Santuan eskiatzera joateko irteera antolatu du. Irteera hori martxoaren 29a eta apirilaren 6a bitartean izango da, La Plagne eski estazio alpinora, hain zuzen ere.

Irteera horretan interesa duen edonork har dezake parte. Izena Pol-Pol mendizale taldearen egoitzan eman beharko da, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era, edo bestela, telefono honetan: 943 76 48 51.



Pazkoetako bazkaria antolatzeko deia

Pazkoetako herri bazkaria antolatzeko deialdia egin du Antolaketa batzordeak. Xamatx dantza taldeko, Jardun elkarteko eta hainbat koadrilatako ordezkariak antolaketa lanetan ari dira dagoeneko. Batzordearen hurrengo batzarra hilaren 26an izango da, 19:00etan, kultura etxean, eta gainerako talde eta koadriletako ordezkariak gonbidatu dituzte parte hartzera.



KORTA-ZAR Txokolategia

OHARRA BEZERO GUZTIOI

Aurrerantzean, astelehenetik eguenera 17:00etatik aurrera zabalduko dugu.

Egubakoitz eta asteburuetan ohizko ordutegia.

Ongi etorriak denok!

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



LA VERGARESAKOAK, BAZKARITAN

La Vergaresa autobus konpainian lanean ibilitako langileek bazkaria egin zuten joan den zapatuan, martxoaren 16an. Gorlako Altzasu elkartearen egin zuten bazkari hori, eta La Vergaresan ibilitako 65 langile elkartu ziren. Bazkari hori, gainera, urte askoan autobus konpainiako arduradun izandako Bixente Murgoitiori omenaldia egiteko aprobetxatu zuten. Izan ere, erretiratu zenean ez zioten agur berezirik egin. Giro ezin hobean ibili ziren bazkarian elkartutakoak, eta dagoeneko horrelako beste bazkari bat egiteko gogoia azaldu zuten. Ondo pasatu zuten seinale, duda barik.



ORRAZKERA ONENEN ARTEAN

Maidar Azkaratek bigarren saria eskuratu zuen domekan jokaturako Emakumezkoen Ile Apaintzaileen X. Gipuzkoako Txapelketan. Baina ez zuen sari hori bakarrik irabazi; izan ere, Ile Apaintzaile Abangoardistenaren saria ere irabazi zuen; orrazkera berezia egin zuen Maidarrek, hainbat hegaztiren lumekin. Laz ere, bi sari eskuratu zituen. Orduan, ikaslea zen, eta ikasleen mailako bigarren saria eman zioten, baita Ile Apaintzaile Abangoardistenarena ere. Aurten, profesionalen mailan hartu du parte, Amparo ile apaindegian lan egiten du-eta.

ELORRIORA TXAPELAREN BILA!

Euskal Herriak Ordago! lelopean, herriko mus txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Arrano tabernan. Lau bikote aritu ziren lehian, eta Gorka Larrañaga eta Felipek irabazi zuten txapelketa. Sagardotegi baten bazkaria irabazi zuen bikote horrek. Oraingo asteburuan Elorrion egingo duten Gazte Topagunearen barruan antolatu dute mus txapelketa hori, Euskal Herriko hainbat herritan moduan. Horrela, bihar, zapatua, Euskal Herriko finala jokatu beharko dute Gorkak eta Felipek Elorrion. Ea, bada, bergararrek txapela janzten duten!

Agirrebeña

GAZTEGIA



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

IBARGYREN
PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

BERGARARRAKMUNDUAN

ALFREDO ÁLVAREZ

34 URTE / TELEBISTAKO TEKNIKARIA / MADRIL

“Bergaran hiruzpalau egun pasatu orduko, Madrilen falta nabaritzen dut”

AINTZANE IRIZAR

Oso gazte joan zen Alfredo Bergararik kanpora bizi izatera; oso ondo gogoratzen ez duen arren, Madrilen bizi dela hamabi edo hamahiru urte izango direla azaldu digu Alfredok.

Ordurako erabakita zeukan Irudi eta Soinu ikasketak egin nahi zituela: “Txikitatik erakarri izan nau telebistaren eta zinemaren munduak; horregatik, UBI ikastera Madriler a joan nintzen, gero Irudi eta Soinu ikasketak han egiteko”. Eta hala egin ere.

Harrezkero, hainbat lanean ibili zen: “Baina nire helburua, jakina, ikasi nuen horretan lana topatzea zen, eta pixkanaka-pixkanaka eremu horretan sartzen joan nintzen”, azaldu digu Alfredok. “Garai hartan, oso zail zegoen telebistan lana topatzea”, gogoratzen du. Baina lortu egin zuen. Gaur egun, T5 telebista katean dihardu lanean, teknikari moduan. Sei urte

daramatza kate horretan lanean. Baina T5 katera iritsi baino lehen, publizitate iragarriak, erreportajeak, eta horrelako lanak egiten ere ibili zen Alfredo, bere kontura.

Askok gustatzen zaio Madrilen Alfredori: “Gehien gustatzen zaidana Madrilen mugimena Alfredok.


“Txikitatik erakarri izan nau telebistaren eta zinemaren munduak”

dua da, Madrilen *jalea*, alegia. Gainera, denetarik egiteko aukera dago Madrilen, kultura eskaintza zabala dago, esate baterako”, adierazi digu Alfredok.

Familiaren eta lagunaren falta pixka bat nabari duen arren, zera esan digu: “Noizean behin oso gustura joaten naiz Bergarara; hala ere, hiruzpalau egun han pasatu orduko, Madrilen falta nabaritzen dut berehala”.

Aurrera begira, Madrilen edo beste hiriren baten bizi izaten ikusten du bere burua Alfredok. Bergarara itzultzeko asmorik, behintzat, ez ei du:

“Oso txiki geratzen zait Bergara, herri txiki-gia da niretako”, esan digu, bukatzeko.



MINGAINARITIRAKA



Robert Campbell

ESPOLON INGLES AKADEMIXAKUA

Lau hillabete daroia Bergaran Robert Campbell-ek. Zeelanda Berrikua da, eta Londresen ezagututako euskaldun batzuek animata etorri zan hona. *Urrezko ezkongabia dala esan dosku.*

Zelatan etorri zīnan munduaren beste muturretik Bergarara?

Lehenengo, Londresen egon nitzan, eta han Zarauzko jentia ezagutu neban. Euskal Herrira etortzia gomendatu zosten, eta animau egin nitzan.

Noiz etorri zīnan?

Urtebete daroiat hemen bizi izaten. Zortzi hillabete egin nittuan Donostian, eta oin dala lau hillabete etorri nitzan Bergarara.

Zela hartu zaittugu bergararrok?

Oso ondo; ez dot bat be arazorik euki, eta lagunak be egin dittut.

Ikasle onak gara bergararrok?

Nik oso ikasle onak daukat; nere herrialdekuak baiño langilliguak die hemengo neska-mutikuak.

Zein da irakasle lanaren alde onena?

Neska-mutikuekin daukaten harremana.

Eta txarrena?

Eskola ordu bakoitza prestatzia kostau egitten jat, buruari buelta asko emon bihar jako-eta.

Denpora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Poteatzia, kalera irtetzia; nahikua juer-gazalia naiz.

Zeure birtude bat?

Pazientzia haundia daukadala eta oso tolerantia naizela.

Eta defektu bat?

Gehixegi erretzen dotela eta oso gozozalia naizela.

Amets bat?

Bost kontinentiak ikustera jungo nitza-ke gustora; izan be, izugarri gustatzen jat tokixak eta jentia ezagutzia.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Luis Fernández

BOLIVIA / 2000ko uztaila

Mendian ibili eta herrialdea pixka bat ikusteko helburuarekin joan nintzen Boliviara, Iruñeko sei lagunekin. Hego Amerikako herrialde-etan oso erraza izaten da horrelako plana egitea; izan ere, 6.000 metroko mendi batera igo, eta bizpahiru egunera hirian egon daiteke bueltan. Gauza asko egin eta ikusteko aukera ematen du.


Boliviara joaten nintzen lehenengo aldia zen, eta gauza batek asko harritu ninduen: entzunda neukan herrialde osoa goi-lautada zela, baina hori ez da horrela; herrialde erdia goi-lautada dela esan daiteke, baina beste erdia, berriz, oihana da.

Boliviako hiriburua, La Paz-en, hasi genuen bidaia. Hiriburua bera oso altu dago, 3.600 bat metrora. Dena dela, desnibel handia dauka hiriburuak berak; izan ere, baxuen dagoen tokia 3.400 metrora dago, eta altuena, ostera, 4.200 metrora.

La Paz-en egun batzuk egin eta gero, Titicaca lakura joan ginen. Laku barruan bi uharte daude: Isla del Sol eta Isla de la Luna, hain zuzen ere. Isla del Sol-en bi eguneko *trekking*-a egin genuen. Maien zibilizazio-ko santutegi bat eta aztarnategi bat ikusi genituen han.

Titicacatik La Paz hiriburura itzuli ginen, eta gero, Errege-Mendikatera abiatu ginen. 5.000 metrotik gorako tontor batzuetara igo ginen mendikate horretan. Gero, Txilekin mugan dagoen Sajama mendira igo ginen; Sajama sumendia da eta Boliviako tontor altuena (6.600 metro); Huaina Potosi tontorrera ere igo ginen; hura izango da Boliviako mendi ezagunena.

Hilabete besterik ez genuen egin Bolivian, eta egia esan, ezin izan genuen nahi genuen guztia egin. Mendian ibiltzeaz gain, herrialdea bera gehixeago ikusi nahi genuen.



“Mendian ibili eta herrialdea ikusi nahi genuen”

“La Paz hiriburua oso altu dago, 3.600 bat metrora”

AINTZANE IRIZAR



Titicaca lakuko Isla del Sol uhartean bi eguneko *trekking*-a egin zuten.

Gesalibar Kontenedoreak

LUIS MARIA OZAETA ETXABE

KONTENEDOREAK, MINI-KONTENEDOREAK. INDUSTRIA ETA OBRETA KO HONDAKINAK JASOTZEN DITU GU. GRUA ZERBITZUA

Etxebarritxo baserria 6
Gesalibar auzoa 20500 Arrasate

Barrenkalea 30
20570 Bergara

Telefonoak
670 77 08 96
659 77 08 96
670 79 97 35
943 79 97 35





Urretxua algortarrak Gorlako Igoerako aro berriko lehen garaipena eskuratu zuen.

TXIRRINDULARITZA

Urretxua bizkaitarrak irabazi zuen Gorlako Igoera berritua

Antton Luengo (Olarra) taldekideari lau segundo atera zizkion helmugan

EDU MENDIBIL

Eguraldia lagun, Gorlako Igoerak ibilbide berria estreinatu zuen martitzenean. Proba benetan ikusgarria izan zen. Baque eta Olarra taldeetako txirrindulariak lehia bizian izan ziren azken kilometroetan, eta Olarra taldeko Iñigo Urretxua bizkaitarrak irabazi zuen.

Txirrindulariek 90 kilometroko ibilbidea izan zuten martitzenean lasterketan, eta beroa izan zen protagonista nagusia. Hasieratik borrokarako gogoaz azaldu zuten partaideek eta proba ikusgarria izan zen, Gorlako aldapean eta ibilbide osoan zehar batu ziren zaleen gozamenarako. Hainbat ihesaldiren ondorioz, Gorlako bigarren eta azken igoeran Baque eta Olarra-Consultec taldeek eraso jo zuten, eta lehia horretan Olarrakoak nagusitu ziren. Iñigo Urretxua bizkaitarrak (Olarra) irabazi zuen proba, Antton Luengo taldekidearen aurretik, hain zuzen. Jarraian, Baque taldeko Joseba Albizu (11 segundora) eta Aitor Galdos (18 segundora) iritsi ziren helmugara. Iñaki Lejarreta (Orbea) izan

zen bosgarrena (18 segundora hura ere). Lejarretak lasterketa bikaina egin zuen, kontuan izanda amateurretan korritzen zuen bigarren lasterketa zuela. Taldekideen laguntzarik gabe, mendi bizikletako munduko junior txapelduna onenekin batera izan zen azken kilometroan.

AZKEN URTEA AMATEURRETAN

Iñigo Urretxua Algortakoa da, 23 urte ditu eta sei urte daramatza amateurretan. Azken lau urteak Olarra taldean eman ditu, eta iaz,

bi lasterketa irabazi zituen. Martitzenean adierazi zuenez, "joan den denboraldian, profesionalentara igarotzeko gertu egon nintzen, baina azkenean ez zen ezer gauzatu eta txirrindularitza uzteko izan nintzen. Amateurretan jarraitzeko animatu ninduten eta beste urtebetez ibiltzea erabaki nuen. Amateur mailan nire azken urtea izango da. Profesionalentara pasatzen banaiz, fenomeno, bestela laga egingo dut ziklismoa. Gorlan irabazteak sekulako ilusioa egin dit".

Antolatzaileak, pozik

Lokatza taldeak ibilbide berria prestatu du aurtengo ekitaldirako. Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen hitzetan, "txirrindulariak eta zaleak gustura geratu dira, eta eguraldiarekin ere zorzea izan dugu. Gure ustetan, asmatu egin dugu ibilbidea aldatzean. Beti bezala, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eman diguten guztiei". San Martin plazako irteeran 157 txirrindulari izan ziren eta horietatik, 66 iritsi ziren helmugara. Bergarako ordezkariak amaitzerik izan ez zuten, herriko onenaren saria Lokatzen ibilitako Xabier Aranguren elgetarrak (Debarrena) jaso zuen. Lokatzako zozketan 1.982 zenbakia izan zen saritua.

Senior eskubaloi taldea Egiialderen aurka zapatuan

E.M.

Bergara KEko senior eskubaloi taldeak Legazpiko Egiialderen aurka jokatu du zapatuan, 18:00etan, kiroldegian. Igoera faseko bigarren partidua izango dute etxekoek. Joan den zapatuan, galdu egin zuten Bilbon lehenbiziko partidua, Deustu Loiola taldearen aurka (32-23). Edu Orgaz entrenatzailearen hitzetan, "lehen zatian despistatuta ibili ginen hainbat minututan, eta tarte horretan zortzi goleko aldea atera ziguten. Gero, ezinezkoa gertatu zitzaigun aldea murriztea, bigarren zatian oso

joko ona egin genuen arren. Bi taldeak defentsan ondo ibili ziren arren, gol asko izan ziren. Partidu ikusgarria izan zen".

SEI TALDE BI POSTURAKO

Bigarren Maila Nazionalera igotzeko ligaxkan, Bergararekin batera, Deustu Loiola, Sestao eta Muskiz talde bizkaitarrak, Bimila gasteiztarrak eta bihar bisitari izango duten Egialde egongo dira. Orgazek azpimarratu duenez, "etxeko partidua irabaztea ezinbestekoa izango da igotzea nahi badugu. Etxean ezin dugu hutsik egin. Gutxienez, 13 puntu beharko ditugu mailaz igotzeko".



Bergarak Arrasateri irabazi zion ligako azken partiduko irudi bat.

FOTOKIROLA



Muguruza eta Gutiérrez, sasoi betean

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrerek 22-15 irabazi zioten Eibarko bikoteari eguaztenean, Debarroko Pilota Txapelketaren finalerdietako joaneko partiduan. Zapatu arratsaldean, Udaberriko Txapelketako finala izango dute Beasainen. /E.M.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

KOPA TXAPELKETA

Bar Canalejas-Pagomendi 4-2

LIGAKO 'PLAY-OFF'-AK

Artusamak-Txipiron 6-2

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:00: Dedo Pafarru-Bedarreta. Antolaketa

11:00: Canalejas-K. Piperrak. Antolaketa

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Bar Ugarte. Errotagain

10:30: Errotagain-Etengabe. Bar Ugarte

11:30: Timofonika-Argandolas. Etengabe

12:30: A Ze Flaxa-Aterpe. Argandolas

16:00: Amoskibar-Artusamak. Mongatxur.

17:00: Mongatxurak-Bayer. Artusamak

ARGI IBILI!

KOPA ETA LIGAKO PARTIDU INTERESGARRIAK ASTEBUKAERAN

Kopako sei kanporaketa eta ligako beste bi jokatu dira astebukeraren. Ligako play-offetan Bar Canalejas-Komando Piperrak eta Mongatxurak-Bayer neurketak izango dira. Kopan, berriz, Ortz-Eri kanporaketa jokatzeko dago, eta final zortzirenerako txapelketatik kanpo geratutako talderen bat berreskuratu dute zozketa bidez.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Mongatxurak	46	19
2. A Ze Flaxa	46	19
3. Bar Ugarte	41	19
4. Eri	31	19
5. Komando Piperrak	26	19
6. Kanpazar	21	19
7. Bar Ganbara	13	19
8. Amilotx	8	19
9. Biciciprecisión Igartua	8	19
10. Agirrebeña	0	19
11. Torrekua	0	0

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	52	18
2. Bar Canalejas	38	18
3. Amoskibar	27	18
4. Aterpe	27	18
5. Txipiron	26	18
6. Vacalouras	25	18
7. THT	20	18
8. Irubide	19	18
9. Artekale pizzeria	15	18
10. Etengabe	0	18

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	46	16
2. Artusamak	35	16
3. Bayer	26	16
4. Argandolas	25	16
5. Dedo Pafarru	25	16
6. Pagomendi	25	16
7. Ortz	13	16
8. Patxaran Team	7	16
9. Timofonika	6	16
10. Bildurbarek	0	0

GAINBEGIRATUA

IGERILEKUAK

Martxoaren 25etik 29ra itxi egingo dituzte Agorrosingo igerilekuak

Egin beharreko garbiketa lanak direla-eta, Agorrosingo igerilekuak itxita izango dira datorren astean, martxoaren 25etik 29ra, biak barne. Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, Osakidetzak agindutako garbiketa egin behar da barruko igerilekuetan.

FUTBOLA

Bergara-Zarautz preferente mailako futbol partidua zapatuan Agorrosinen

Preferente mailako Bergara futbol taldeak Zarautz hartuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Garrantzi handiko partidua izango da, bi taldeak elkarren ondoan daude-eta sailkapenean. Aurreko jardunaldian Hondarribiari irabazi ostean, Bergara 7. dago sailkapenean.

PILOTA

Imaz-Patxi Ruiz eskuz banakako partidua zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan

Zapatuan, pilota jaialdia izango da Udal Pilotalekuan, 16:30ean. Imaz eta Patxi Ruiz izango dira aurrez aurre eskuz banakako txapelketaren barruan. Aurretik, Tirapu-Beloki eta Alustiza-Barriola bikoteek jokatu dute, eta Nalda III.ak Leizaren aurka jokatu du.

SASKIBALOA

Eskola mailako monitoreendako saskibaloia ikastaroa apirilean Labegarietan

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek eta Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak antolatuta, eskola mailako monitoreendako saskibaloia ikastaroa izango da Bergaran apirilaren 2tik 4ra bitartean. Izenematea eta argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Zarautz
Preferentea. Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Gazteak
Lehen erregionala. Zapatua. 18:30. Ipintza.
Bergara-Hondarribia
Ohorezko maila. kadeteak. Domeka. 10:30. Ipintza
Bergara-Aldapetarra
Ohorezko mailako gazteak. Domeka. 12:00. Ipintza.

ESKUBALOA

Bergara-Egialde
Senior mutilak. Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

SASKIBALOA

Bergara-Elurte
Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.

PILOTA

Bergara 2-Añorga (infantilak)
Bergara 1-Gazteleku (infantilak)
Bergara-Antzuola (kadeteak)
Aurretik Udaberriko herriko txapelketako partiduak.
Egubakoitza. 19:00. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 3 Hondarribia 0 (Preferente maila)
Ilintxa 5 Bergara 0 (Lehen erregionala)
Bergara 2 Amaikak Bat 1 (Neskak)
Anaitasuna 0 Bergara 2 (Ohorezko mail. gazteak)
Bergara 0 Zestoa 1 (Lehen mailako gazteak)
Bergara 2 Soraluze 1 (Bigarren mailako kadeteak)
Bergara 4 Elgoibar 0 (Infantilak)

ESKUBALOA


Deustu Loiola 32 Bergara 23 (Senior mutilak)
Bergara 35 Beasain 8 (Gazte mutilak)
Legazpia 10 Bergara 27 (Kadete mutilak)

SASKIBALOA

Bergara 66 Aldapeta 56 (Senior mutilak)
Bergara 45 Etxadi 20 (Gazte mutilak)
Lasalle 49 Bergara 26 (Kadete mutilak)

PILOTA

Bergara 22 Amezketa 12 (Kadeteak)
Bergara 15 Hernani 22 (Gazteak)
Bergara 22 Oartzun 6 (Bigarren mail. seniorrak)
Bergara 22 Urretxu 12 (Lehen mail. seniorrak)



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12
BERGARA
943 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ELKARRIZKETA

PEDRO MUXIKA/VIRAGO ANTZERKI TALDEKO ARDURADUNA

“Mundu guztiak ikas dezake interpretatzen, gogoia edukiz gero”

MONIKA BELASTEGI

Virago antzerki taldeko arduraduna da Pedro Muxika. Apirilera da neska-mutikoendako antzerki ikastaroa antolatatu du. Ikastaro horrek jolasaren bidez antzerkigintza irakasteko helburua izango duela azaldu digu Pedrok.

Zergatik antolatu duzue antzerki ikastaroa?

Virago, antzerki taldea izateaz gain, jende gaztea ateratzeko harrobi izaten ere saiatu da.

Bost edo sei urtean behin, amaiera aldi bat izaten dugu: jendea unibertsitatara joaten da, ezkondu egiten da, lana aurkitzen du... Une honetan, horrelako garaia bizi izaten ari gara, eta jende berria ateratzeko une aproposa dela pentsatu dugu.

Horrez gain, hainbat gurasok ere galdetu digute ea zergatik ez dugun antolatzen umeendako ikastaro bat. Eta azkenean, bi arrazoi horiek kontuan hartuta, beste antzerki ikastaro bat antolatzen hasi gara.

Norendako da ikastaroa?


Umeendako eta gaztetxoendako; azken baten, hamasei urteko gorakoek urtebetera edo bi urtera alde egiten dute taldeak, unibertsitatara eta joaten direlako. Hori dela eta, zortzi eta hamaika urte bitarteko neska-mutikoendako eta hamabi eta hamasei urte bitartekoendako talde bana antolatu dugu.

Eskolak zapatu goizetan izango dira, eta hiru ordu eta laurden iraungo dute. Txikiendako, 11:30etik 12:15era, eta nagusia-goendako, 12:15etik 13:00etara. Ni ibiliko naiz irakasle, eta Virago taldeko kideak ere lagun izango ditut, egunean landuko dudako gaiaren arabera.

Hainbat gurasok ikastaroa antolatzeko eskaria egin dutela esan duzu. Zure ustez, guraso askok ikusiko dute ikastaroa eskolaz kanpoko ekintza probetxugarri gisa?

Txiki-txikitatik errubera baten barruan sartuta gaude. Guraso askok ez dute ikusten umeak jolasteko tarte bat ere izan behar duela. Guztia ez dela eskolatik irten, merienda hartu, ingelesera joan, eta gero etxeko lanak egin, afaldu eta lotara.

Hezkuntzaren gainean ikuspuntu propioa daukat, eta nire ustez, artea orokorrean eskoletan landu beharko litzateke. Musika, adibidez, eskoletan irakasten dute, baina ez dauka beste gai batzuek duten pisu berbera. Musika ikasi nahi bada, eskolatik kanpo egin behar da. Guk, artea lantzeko antolatu ditugun ikastaroen, kasu honetan antzerkia



MONIKA BELASTEGI

“Urduritasuna ezkutatzeko, gorputz espresioa, ahotsa lantzen... irakatsiko dugu ikastaroan”

lantzeko beste aukera bat eskaini nahi izan dugu.

Zer ikasiko du izena ematen duenak?

Puntu garrantzitsu batzuk landuko ditugu: taulatu baten gainean urduritasuna ezkutatzeko, gorputz espresioa, ahotsa lantzea, erritmoa lantzea, eta abar. Hori guztia, jolasaren bidez eta neska-mutikoen imajinazioa areagotzeko nahiarekin.

Helburua Virago taldean aritzea izango da?

Nahi dutenek Virago taldeko atea zabalik izango dituzte.

Zelan dago orain Virago?

Duela gutxi arte, zortzi lagun ibili gara taldean azkeneko hiru urtean. Lehen esan dudana gertatu da: batzuk unibertsitatara

“Ikastaroan parte hartzen duen edonork izango du Virago taldean aritzeko aukera”

joan dira, bete batzuek lana aurkitu dute... Eta harreman guztia ez galdu arren, poliki-poliki moteluz joan da. Hori dela eta, beste aro bat hastea pentsatu dugu. Dena dela, mundu guztiak dituzte atea irekita.

Izena ematen neska-mutikoek aurrera egiten badute, noiz egongo zarete beste emanaldi bat egiteko moduan?

Urte eta erdi barru-edo, datoren urteko Gabonetarako. **Edonork ikas dezake interpretatzen ala berezko dohaina behar da?**

Edonor da gai, ez da berezko dohainik behar. Antzerkitik bizi izateko bai, baina osterantzean, gogoia besterik ez.

Kirol Argazki Lehiaketan parte hartzeko oinarriak, kalean

MONIKA BELASTEGI

Kirol Argazki Lehiaketako oinarriak kalean dira dagoeneko. Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatu dute lehiaketa. Lanak aurkezteko epea irailaren 25ean amaituko da.

Abian da Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatu duten Kirol Argazki Lehiaketa. Euskadin bizi den edozein zalek har dezake parte lehiaketan, betiere kontuan izanda gaia kirola izan beharko dela.

Modalitateari dagokionez, zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak onartuko dituzte, eta laborategiko edozein teknika prozedura onartuko da. Lan kopuruaren kasuan, mota bakoitzeko lau aurkez daitezke, beste inongo sariketatan saritu gabeak. Lanak 30x40 zentimetroko kartoi mehean aurkeztu beharko dira. Argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia norberaren aukeran geratzen dira. Lanaren atzeko aldean argazkiaren egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefonoa eta hala bada, parte hartzen duen argazki elkartearen izena adieraziko dira.

Lanak aurkezteko epea irailaren 25ean bukatuko da, eta udal-letxera bertara eraman edo posta zertifikatuz bidal daitezke.


Sarrituen izenak irailaren 27an emango dituzte aditzera, eta lau sari egongo dira: lehenengo hiru sariak eta Bergarako argazki onenaren saria. Lehiaketan parte hartzen duten argazkien artean aukeraketa egin, eta horiekin erakusketa egingo dute kultura etxean, urriaren 3tik 13ra.

BERGARA HIRIA LEHIAKETA

Pol-Pol argazki taldeak antolatzen duen Bergara Hiria Argazki Lehiaketako oinarriak ere kalean dituzte.

Lehiaketa horretan gaia libre izango da, eta bestean bezala, bi modalitate izango dira. Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, eta edozein teknika edo prozedura onartuko dute.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 22an amaituko da, eta Udalera eraman edo posta zertifikatuz bidali beharko dira. Sariak Kirol Argazki Lehiaketaren modukoak izango dira, eta aukeratuak lanekin erakusketa egingo dute maiatzaren 30etik ekainaren 9ra bitartean.



Irudian lehiaketan saria jasotako lanetako bat, Adolfo Vazquez argazkilariaena.

KULTURAPILULAK

Pintura Lehiaketa antolatu du Bergarako UNEDek 25. urteurrenaren barruan

Edonork har dezake parte UNEDek antolatu duen Pintura Lehiaketa horretan, eta margolanetan erabili beharreko teknika eta estiloak libreak izango dira. Hiru sari banatuko dituzte: lehenengoa, 3.000 euro (500.000 pezeta); bigarrena, 1.500 euro (250.000 pezeta); eta hirugarrena, 750 euro (125.000 pezeta).

Lanak ikastetxeko idazkaritzan utzi beharko dira, San Martin Agirre plaza 4an, hain justu ere. Lehiaketa horretara aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da.

Abdon Juaristi Pintura Lehiaketako bosgarren aldia abiarazi du Gure Ametsak

Lehiaketaren helburua izango da Mendekoste jaietan egingo diren zezenketetarako kartel iragarlea sortzea, eta nahi duten artista guztiek hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

Kartelen gaia “Zezenak Bergaran” izango da. Estiloa eta teknika libreak izango dira; antolatzaileek ez dute estilorik ez teknikorik zehaztuko. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 12tik 18ra bitartean, biak barne, astelehenik egubakoitzera, 16:00etatik 21:00etara.

E.TXO!

BIHAR, KONZERTUA
GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, kontzertu hirukoitza izango dugu Bergarako gaztetxean, 22:30ean hasita. Hiru talde hauek arituko dira: Discipulos de Dionisos, Superguarras eta Supercools talde bergarra, hain zuzen ere.

Eta datorren eguaztenez, martxoaren 27an, Gernikako Audience eta Donostiako Miztura taldeen kontzertua izango dugu gaztetxean, 22:30ean.

ZINEMA EMANALDIA

Domekan, astero moduan, film bat eskainiko dute gaztetxeok, hango areto nagusian. 18:00etan izango da hori, eta *Underground* filma eskainiko digute.

Datorren astean, martitzenean, martxoaren 26an, gaueko hamarretan, beste film bat ikusteko aukera izango dugu: *1.984* filma eskainiko digute.

AUZOLANDEGIAK 2002

Urtero moduan, aurtengo udarako gazteendako auzolandegeiak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Datorren astelehenean, martxoaren 25ean, zabalduko dute aurretiko izenematea egiteko epea, eta apirilaren 5era arte egongo da zabalik.

Auzolandege horiek Euskal Herrian bertan edo atzerrian egingo dituzte. Behin aurretiko izenemate epea amaituta, zozketa egingo dute, eta apirilaren 22an emango dute aditzera zozketaren arabera osatzen duten onartutakoen zerrenda.

Gipuzkoako Kutzara deitu beharko duzue izena emateko, honako telefono zenbakira, hain zuzen ere: 901 11 64 64.

GUREGAIK/ MUSIKA

Maketa Lehiaketa,
taldeendako aukera bat

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako musika taldeek euren burua ezagutzera emateko aukera polita dute, Gaztemaniak Maketa Lehiaketan parte hartuta. Apirilaren 30era arte dute euren lanak aurkezteko aukera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailak seigarren aldiz antolatu du Gaztemaniak Maketa Lehiaketa. Lehiaketa horren helburua da Gipuzkoako musika taldeei aukera bat ematea.

Lehiaketa horretan parte hartu nahi duten taldeek apirilaren 30era arte dute euren maketak aurkezteko. Gutxienez hiru abestiz osatutako maketak izan behar-

ko dira, eta binilo edo CD formatuan aurkeztu beharko dira.

Antolatzaileek ez dute mugarik jarri musika estiloari dagokionez. Baldintza bakarrak izango dira musika taldea gipuzkoarra izatea eta aurretik diskorik argitaratu barik edukitzea. Aurreko aldietan Gaztemaniak lehiaketa horretan saritutako taldeek ere ez dute parte hartzeko aukerarik izango.

Aurkezten diren talde guztien artean 15 aukeratuko dituzte, eta guztien abestiak batuko dituen CD bat argitaratuko du Diputazioko Gazteria Departamentuak. Talde irabazleek, bestalde, audio-lagin bat ere izango dute Diputazioaren www.gipuzkoa.net/musikagida web orrian.



Irabazleen abestiak CD baten argitaratuko dituzte.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Olatz Larrañaga

“Oso neska alaia eta saltseroa naiz”

AINTZANE IRIZAR

Bai, bai, oso saltseroa da, eta *Lotsa barik*-erako ere animatu da! Saltseroa eta parrandazale amorratua. Pentsa, bizitzan lehentasuna zeri ematen dion galdetu diogunean, Euskal Herriko jaiak aipatu dizkigu!

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Suhiltzaile; izan ere, ezin naiz geldirik egon, azioa gustatzen zait.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Suhiltzaile, behintzat, ez. Gustatzen zaidan zerbeitetan lanean eta ezkondu barik.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Zintzoa izateko, tontakeriarik ez egiteko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Nik uste dut taktika onena “pelota egitea” dela. Niri funtzionatzen dit taktika horrek.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta Euskal Herri oso-ko jaiari; izan ere, oso parrandazalea naiz.

• Zure bertute bat?

Oso alaia naizela, baita saltseroa ere; saltsa guztietan sartzea gustatzen zait.

• Eta hutsune bat?

Askotan haserretzen naiz, oso

jenio bizikoa naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Irakasleek lan asko ematen digutenean eta denera iritsi ezin naizenean, amorratu egiten naiz.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Bernetako muskulu bikiak, *gemeloak*, gustatzen zaizkit.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Mutilei, ipurdiari eta neskei, aurpegiari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez. Aukera dagoenean ligatu bai, baina seduzitzeko ez dut ezer berezirik egiten.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBH-4 • ZALETASUNAK: Futboleko jokatzea eta lagunekin egotea • LIBURU BAT: ‘Crazy’, Benjamin Lebert-ena
FILM BAT: ‘Scary Movie’ • MUSIKA TALDEA: Sonata Arctica • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Kanpainaren helburuetako bat adineko pertsonen eskubideak aditzera ematea da.

Zaharren Agiriaren aldeko sinadura batzea egingo dute zapatu goizean

EDU MENDIBIL

Bihar, zapatua, Zaharren Agiriaren aldeko sinadura batzea egingo dute San Martin plazan, 10:00etatik 13:00etara. San Joxepe erretiratuen elkarteak herritar guztiei parte hartzeko dei egin die.

Gizartekintzak eta Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluak Zaharren Aldeko Agiria landu dute, herritar guztiei ezagutzera emateko helburuarekin. Kanpainak hiru helburu ditu: alde batetik, adineko pertsonen eskubideak aditzera ematea; bestetik, erakundeen eta herritarren atxikimendua lortzea sinadura batzearen bitartez; eta azkenik, agiria bera eta jasotzen dituzten sinadurak apirilaren 5etik 9ra bitartean Madrilen izango den Zahartzearen Munduko Asanbladan aurkeztea.

Gaurko gizartean gazteei lehenetsia eman, eta askotan adineko pertsonak baztertu egiten direla jasotzen da agirian.

Agiriak gizarte integratzaile baten alde egitea eskatzen du eta horretarako hiru printzipio mamitzen joateko garrantzia azpimarratzen du. Hain zuzen, adinagatik bazterketarik ez egitea, herritartasunaren printzipioa eta belaunaldien arteko elkartasuna ezinbestekoak dira. "Herri-

tartasunaren printzipioa gauzatzeko, benetako aukerak eman behar zaizkie zaharrei, eta bitartekoak jarri, bizitza pribatuan nahiz gizarte bizitzan beren eskubide zibil, politiko eta ekonomikoak eta gizarte eta kultura eskubideak erabiltzeko", dio agiriak.

ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA

Bestalde, zaharren eskubideen artean bost nabarmentzen dira agirian: duintasun eskubidea, independentzia eskubidea, parte hartzeko eskubidea, norberaren errealizaziorako eskubidea eta, azkenik, norberaren eskubideak ezagutu eta defendatzeko eskubidea. Gizartekintzaren eta Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluaren agiriak zera dio: "Aurretik zaharren inguruan landutako agirietan jasotako eskubideekin funtsean bat etorrira ere, eskubide horiek gauzatzeko behar diren egoera eta baldintzak xehetasun handiagoz jasotzeko, bidea zabaldu nahi dugu eskubideen aldarrikapenak berekin zer dakarren hausnartzeko eta eztabaidatzeko".

Sinadura asko jasotzea helburu

San Joxepeko zuzendariak argitu nahi izan du zapatuko sinadura batzea ez dagoela pertsona edadetuei bakarrik zuzenduta. Herritar guztien partaidetza lortu nahi dute, ahalik eta sinadura gehien jasotzea da eta zapatuko deialdiaren helburua. Nortasun Agiria eramatea behar-beharrezkoa izango da kanpaina horretan parte hartu ahal izateko.



San Joxepeko mendi irteera apirilaren 3an

San Joxepe elkarteak antolatuta, erretiratuendako mendi irteera izango da Aste Santuaren ostean, apirilaren 3an, hain zuzen ere. Irteera goizeko zortzietan izango da, autobus geltokitik, eta honako ibilbidea izango dute jarraian: Bergara-Aretxabaleta-Urkulu-Bedoña-Bergara. Parte hartzeko interes dutenek San Joxepen bertan eman dezakete izena. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian. Bestalde, San Joxepekoek irteera egin zuten eguaztenean. Ezkion, Ormaiztegin, Azpeitian eta Zumaiian izan ziren 60 bat lagun.

ZAHARRETXOKOTIK

Mari Jose Etxezabal

ILE APAINTZAILEA

Hogeita bost urte daramatza San Joxepeko ile apaindegian: Aurretik, hainbat tokitan ibili zen lanean. Azpeitiarra izatez, ezkontakoan Bergarara etorri zen.



Txikitatik ile apaintzaile izan nahi zenuen?

Sukaldari izan nahi nuen. Sukaldea beti gustatu izan zait, batez ere, gozogintzako kontuak atsegin ditudalako. Baina galduta daukat eskua pixka bat. Hala ere, ile apaintzaile lanetan ibili naiz beti. San Joxepera etorri aurretik, Poleasen ile apaindegian, frontoian, eta San Pedro kaleko beste baten ibili nintzen.

Bezeroak betikoak dira?

Denetik, betikoak eta berriak. Emakume asko sarri etortzen dira, baita berriak ere. Azken baten, hemen pre-

zio merkeagoak ditugu eta diruari denok begiratzen diogu. Merke eta ona, gauza gutxi dago gaur.

Lanpetuta ibiltzen zara?

Lan gehien festak eta horrelakoak hurbiltzen direnean izaten dut, baina bai, lana beti egoten da. Baina ondo moldatzen naiz, gustura nabil.



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialak
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Plaza honek mediku eta euskaltzale bergarar baten izena dauka.
Nor zen hura eta zein titulu eman zion Euskal Herriko Unibertsitateak 1982an?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Izei zuria

Abies alba

MAITANE ARIZABAETA

Tamaina ertaineko zuhaitza. 50 metro har ditzake. Hostoak orratz formakoak dira: berdeak gainaldean eta azpialdean, berriz, bi estoma zuri ageri dute. Kono arrak adar guztietan zehar sakabanaturik ageri dira; emeak, ordea, zuhaitzen gainaldean ageri dira. Udaberrian loratzen dira eta pinaburuak udazken aldera heltzen dira.

Euskal Herrian, era naturalean, Iratin ikus ditzakegu izeiak, pagoekin batera. Baina izei zuria apaingarri gisa ere erabiltzen da gure parke eta lorategietan. Bergaran, esaterako, Usondo eta Arrizuriaga parkeetan.

Egurra zuria, arina eta erretxin gutxikoa da, erretzeko eta ikatza egiteko eskasa. Eraikuntzan, ebanisterian eta musika tresnak (organoak, biolin kaxak, eta gitarrak) egiteko erabilia izan da, baita piloteak, posteak eta kaxak egiteko ere.

Izeietatik ateratzen den trementina zauriak osatzeko enplastoak eta kremak egiteko erabiltzen da, baltsamikoa eta bulnerarioa da-eta. Begiekin egindako infusioak, aldiz, oso aproposak eta eraginkorrak dira eztulari eta katarroei aurre egiteko.


“Egurra eraikuntzan, ebanisterian eta musika tresnak egiteko erabili izan dute”



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|--|
| <p>1.
Zenbat abelburu egongo dira Erramu Zapatuko Ferian?</p> <p>A/ 110 inguru.
B/ 50 inguru.
C/ 200 inguru.</p> | <p>2.
Zein komunikabidetan ari da lanean Alfredo Alvarez telebista teknikari bergararra?</p> <p>A/ Antena 3.
B/ Tele 5.
C/ Canal Plus.</p> | <p>3.
Zein taldetan ari da Gorlan garaile izan genuen Iñigo Urretxua txirindularia?</p> <p>A/ Baqué.
B/ CDR.
C/ Olarra Consultec.</p> |
|---|---|--|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDONI ITURBE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andoni!
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Antzuola, Azkoitia, Arrasate, Oñati eta Elorrio.** / Galde debalde: **1-A, 2-C, 3-C.**



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Carbonell oliba olioa

0,4 °, litro bateko botila.

2,58 €

429 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

**GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES**

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak





BERGARA
Ariane Sasieta
Martxoaren 23an 4 urte.
Urte askotarako!
Elena eta gurasoak.



BERGARA
Maider Agirrezabal
Martxoaren 22an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Gorka.




BERGARA
Aitziber Perez
Martxoaren 22an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Idoia Imaz
Martxoaren 29an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Irizar
Martxoaren 26an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Juanma Bote
Martxoaren 15ean 27
urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Martin Larrañaga
Martxoaren 25ean 3
urte. Urte askotarako!
Txomin eta gurasoak.



BERGARA
Mikel Elkorobereibar
23an 4 urte. Zorionak!
Aitona-amonak eta Eli.



BERGARA
Danel Santamaria
Martxoaren 20an
urtebetetzea. Zorionak
eta muxu bat! Etxekoak.



ELGETA
Karmele Astaburuaga
Zorionak! Zuk dakizuna-
gatik eta zuk dakizunak.



ELGETA
Maitena Mañarikua
Martxoaren 20an 7 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Juan Jose Carretero
Martxoaren 22an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Unai Bilbao
Martxoaren 22an 19
urte. Urte askotarako!
Zuk dakizuna.



BERGARA
Marina Urriolabeitia
Martxoaren 25ean
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iban Diez
Martxoaren 16an 5 urte.
Urte askotarako!
Izebak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiözu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19
BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Kruz Gallastegi 2, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 22a / 106. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com



AINTZANE IRIZAR

Guztira, hamasei etxebizitza egingo dituzte Sallabente eta Irutxeta dauden tokian.

Irutxeta eta Sallabenten etxebizitza berriak

AINTZANE IRIZAR

Irutxeta baserria eta Sallabentekoa bota, eta etxebizitza berriak egitea aurrez ikusi dute arau subsidiarioen dokumentu berrian. Herriko sarrerako gune horrek, hortaz, itxuraldaketa nabaria izango du urte batzuk barru. Guztira, 16 etxebizitza egingo dituzte.

Antzuolako Udalak onartu berri dituen arau subsidiario berrietan Irutxetan eta Sallabenten etxebizitzak egitea aurrez ikusi dute.

Horretarako, Irutxeta baserria botako dute, baita Sallabenteko etxebizitzak ere.

Irutxeta baserria bota, eta, hantxe bi etxe egiteko asmoa daukate. Eta etxe horietako bakoitzean bi etxebizitza egongo dira, ezker-eskuin.


Sallabente dagoen tokian, berriz, familia bakarreko hamabi etxebizitza egiteko asmoa dute.

Kontuan hartu behar da, hala ere, hamabi edo hamabost urterako ikuspegiarekin egiten direla arau subsidiarioak; hortaz, etxebizitza guztiok ez dira bere-

halakoan egingo. Irutxeta, baina, laster botako dutela espero dute, eta etxe berriak egiten hasi.


LOTUNE BERRIA

Etkezuri ondoan dagoen zubian ere hainbat aldaketa egitea jasotzen da arau subsidiarioetan, aurreko astean iragarri genuen moduan. Besteak beste, Matz-Erreka eta Elay enpresetarako lotunea egingo dute zubi horretatik. Sallabenten eta Irutxetan egingo dituzten etxebizitzetarako lotunea ere zubi horretatik bertatik egiteko asmoa dute.



Autobia egiteko lurzorua aztergai

Batek baino gehiagok ikusiko zituen, seguruenik, Diputazio-ko teknikoak zulaketak egiten Antzuolan. Egun hauetan, Aristi baserriaren parean dihardute. Beasain-Durango autobia-riaren proiektua osatzeko azterketa geoteknikoak egiten dihardute; izan ere, errepidea pasatuko den tokietan lurzorua zelan dagoen jakin nahi dute teknikoek. Oraingoan, Beasain eta Ormaiztegi arteko zatia bukatuta dago, eta Bergaran San Antonioko saihebidia egiten dihardute. Zumarraga eta Bergara artekoa, berriz, 2009. urterako egingo ei dute. /A.I.



**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Itzar

LIBURUDENDA
ESTANKOA

Kalebarren 1 ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

KIROLA

Bihar, zapatua, hasiko da Pala Txapelketa

AINTZANE IRIZAR

Urtero moduan, herri mailako Paleta Txapelketa antolatu du Olalde pilota elkarteak. Bihar goizean (martxoak 23) jokatu dituzte txapelketako lehendabiziko partidua. 09:00etan hasita, bost partidu jokatu dituzte, eta arratsaldeko lauretan beste bat.

Hamabi bikotek eman dute izena herriko Paleta Txapelketan parte hartzeko. Ohi bezala, bi mailatan banatu dute txapelketa: lehen mailan sei bikotek hartuko dute parte eta bigarren mailan beste sei bikote arituko dira norgehiagokan.

Esan bezala, bihar, zapatua, goizean jokatu dituzte txapelketako lehen partidua; eta bihertik aurrera, zapaturo jokatu dituzte partidua: apirilaren 6an, 13an, 20an eta 27an, hain zuzen ere.

Bost egun horietan kanporaketak jokatu dituzte eta maila bakoitzeko lau bikote sailkatuko dira finalerdietarako. Maiatzaren 4an jokatu dituzte finaler-

diok. Bai lehen mailako eta bai bigarren mailako finalak, berriz, maiatzaren 11n jokatu dituzte, goizez.

HAMABI BIKOTE

Esan bezala, hamabi bikotek hartuko dute parte txapelketan, sei bikotek maila bakoitzean.

Lehen mailan honako bikoteek eman dute izena: Toledo eta Peñalba; Arana eta Garitano; Arbulu eta Zabalo; Manso eta Iturbe; Arratibel eta Iraola; eta Azkarate eta Jauregi. Bigarren mailan, berriz, honako bikoteak arituko dira: Peñalba eta Seguro; Alonso eta Vargas; Almena eta Acosta; Arregi eta Gezalaga; Azkarate eta Rodríguez; eta Biteri eta Biteri.

Hamabi bikotek hartuko dute parte Paleta Txapelketan, sei bikotek maila bakoitzean

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 23

16:30: Antzuola-Orioko (Gazteak)

PILOTA

Martxoak 23 (Herriko pala txap.)

09:00etatik eta 16:00etatik aurrera

jokatu dituzte partidua

EMAITZAK

FUTBOLA

Zumaiako B 1 Antzuola 1 (2. erreg.)

Urki 1 Antzuola 0 (Neskak)

Amaiak Bat 7 Antzuola 2 (Gazteak)

Antzuola 2 Urnieta 6 (Kadeteak)

PILOTA

Udaberri Saria

Zurriola-Olalde (eskuz kad.) 7-22

Illunpe-Olalde (eskuz nag.) 18-22

Hernani-Olalde (paletaz) 32-35

Deba Arroko txapelketa

Lagunak-Olalde (nagusiak) 22-6

ESKOLA KIROLA

Saskibaloiko alebinen sailkapena

Antzuola (neskak) 82 puntu

Antzuola A (mutilak) 6 puntu

Antzuola B (mutilak) 18 puntu

Olalde elkarteak pilotariak fin ari dira Udaberri Sarian

Joan den asteburuan, Olalde elkarteak maila guztietako partidua irabazi zituen Gipuzkoako Udaberri Sarian.

Kadete mailakoak 7-22 nagusitu ziren Zurriolako pilotarien aurka. Palako nagusien mailan ere Olalde nagusitu zen, Hernanin aurka, 32-35. Eta azkenik, buruz buru 18-22 irabazi zuten nagusiek Illunperen aurka jokatu zuten finalerdia.

Nesken futbol taldea Kopa txapelketa jokatzeko hasi da

Joan den domekan jokatu zuen Kopako lehen partidua nesken taldeak. 1-0 galdu arren, partidua ona jokatu zuten, eta hiruzpalau gol aukera izan zituzten.

Iazko denboraldian sortu zuten taldea. 2000-2001 denboraldian, emaitza eskasak lortu zituzten. Aurten, denboraldi hobea egiten ari dira. Iaz, 20 partidutik bakarria irabazi eta bi besterik ez zuten berdindu. Aurten, berriz, 22tik bost irabazi dituzte, eta zortzi berdinketa lortu dituzte.

ATREBENTZIAEZPADA/ Umiendako jangelia jartzia zela ikusten dozu?




IÑAKI NARBAIZA
25 urte

Nik ez daukat umerik, baiña ondo etorriko litzake. Gero eta gehiago, gurasuek, bixek, egiten dabe lan, eta laguntasuna izango litzake.



PIEDAD ITURBE
42 urte

Nik uste dot biharrezkua dala; ume asko dare, base-rikuak diralako edo gurasuak lanian darelako, ondo etorriko jakue-nak jangelia jartzia.



SANTIAGO POZO
35 urte

Antzuola herri txikixa da, eta zailla ikusten dot, baiña ondo pentsatzen jat jangelia jartzia. Zenbat eta zerbitzu gehiago euki, orduan eta hobeto.



JOAQUINA CASTRO
33 urte

Oso ondo ikusten dot. Uste dot biharrezkua dala. Batez be, lan egiten daben gurasuei oso ondo etorriko jakue umiak jangelara bialtzeko aukeria.



ANASTASI GABILONDO
60 urte

Premiñia daukenendako oso ondo etorriko litzakeela uste dot. Badare 20 ume baiña gehiago jungo lirakienak, jangelia jartzekotan.

Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

AITZ-GARBI
taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

GoROSTi
Taberna

943 76 62 96
Zurragi plaza
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko martxoaren 22a / 92. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Intxortako gudarien monolitoari eraso

OXEL EROSTARBE

Asentzioko bidegurutzean dagoen eta Intxortako gudarietarako omenaldia egiten den granitozko monolitoari eraso egin diote. Monolitoa guztiz apurtzea lortu ez badute ere, guztiz hondatuta geratu da eta bertan idatzita zegoen testua ezin da irakurri ere egin.

Aurreko asteko egunean jaso genuen berria. Gerra Zibileko gudarietarako omenaldia egiten zien granitozko monolitoari eraso egin zioten ezezagun batzuek. Harria zelan geratu den ikusita, mazo edo mailuka handi batekin jardun zutela antzeman daiteke.

Asentzioko bidegurutzean dago monolitoa, Euskadiko gudarietarako inguru horretan gelditu zituzten-eta frankistak Gerra Zibilean. Apurtu berri duten monolitoa 1980an ipini zuten. Besteak beste, erbestean lehendakari zen Leizaola eta fronteko buruzagi Pablo Beldarrain izan ziren orduko omenaldian.

SEI HILABETEAN EUTSI ZUTEN

Intxortako borrokaldi garrantzitsuenak 1936ko urria eta 1937ko



Intxortako gudarien omenezko granitozko monolitoa horrela geratu da.

apirila artean izan ziren. Martiartu batailoiak, Pablo Beldarrain gidaritzapean, sei hilabete eutsi zuten Intxorta inguruan. Estrategikoki garrantzitsua

zen Elgeta. Frankistek, hegazkinen laguntzarekin, ezin izan zituzten gudariak garaitu. Azkenean, etsaia Udaltatik sartu zen, eta Elgeta erabat suntsitu.

AURKEZPENA

Kirola Euskaraz-ko fitxak, aurkeztuta

Eguazten eguerdian (hilaren 20an), udaletxeko areto nagusian, Kirola Euskaraz programako fitxa didaktikoak aurkeztu zituzten. Diputazioko Euskara Zuzendari Lore Leanizbarrutia eta Mankomunitateko Kirol batzordeko arduradun Patxi Basauri izan ziren aurkezpena egiten.

Bestalde, fitxa didaktikoak egiten ibili diren bekadunak ere han izan ziren. Horrela, prestaketa fisikoko fitxa didaktikoak Danel Fernández de Jauregi elgoi-

bartarrak egin ditu. Bestetik, aerobicoko fitxa didaktikoak Silvia Arrivas plazentziarrak, eta Leier Cano eta Onintza García donostiarrek egin dituzte.

Kirola Euskaraz programako bekadunek bi urtean jardun duté aerobicoko eta prestakuntza fisikoko fitxa didaktikoak gertatzen. Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek lagunduta, liburu dendetan eta kiroldegietan izango dira salgai fitxa didaktikoak fitxa didaktikook.



Udaletxeko Pleno Aretoan izan zen eguazteneko aurkezpena.

HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Kimikaria

Nork dio kontrakoa?

D enok izan gara inoiz edo gara eguneroko bizitzan antzezle. Gehiago ala gutxiago, baina gure artean ez da inor libratzen. Egia esan, batzuk "Oscarrik" irabazi ez arren merezimendu itzelak egin dituzte sari hau jasotzeko. Bilatzen jardunez gero gure artean aktore eta aktorea bikainak aurkituko genituzke, eta ez nolana hikoak! Hainbat talentu ditugu hor ezkutuan... Ez naiz joango bide horretatik.

Bizibidez eskenatokia daukaten antzezleen antzerkietara joateko ohitura gutxi daukagu. Bitxia da, baina hor dago kontraesana. Badirudi

egunean zehar nahiko antzerki egiten edo ikusten dugula, eta ba horrekin aseta geratzen garela. Zertarako antzokirako sarrera ordaindu egunero badaukagu antzerkia edozein izkinatan? Baina noski arrazoia ez da hori, besteren bat izango da, espero. Izan ere, antzerkira joatea, zinemara, kontzertu edo kirol ikuskizunetara joatea bezain atsegina izan daiteke, edo agian gehiago.



"Badirudi egunean zehar nahiko antzerki egiten eta ikusten dugula"

Egon naizen bi azken antzerkiek hori esaten didate. Azkena "Comicologos" antzerkia izan da. Antzerkia gogoko ez duen edozein, eskenatikietara erakartzeko bezalako lana. Parrez lehertzekoa. Baina nik ez dut inor antzerkira joateko behartzen, bakoitzak jakingo du zer egin, jada helduak gara eta. "Garaipen Operazio" deituriko antzezlan hori ikustera inor behartzen ez

dudan legez. Edota T5en dagoen gauetako izarretako programa ikustera inor bultzatzen ez dudana bezala, edo "Anaia handia"... Punta puntako antzerkiak!

Agian norbait ez dator bat nirekin; baina hori ikusten duenak ez dezala esan antzerkia ikusten ez duenik. Dioena errespetatuko dudana arren, bere iritzia nirearen aurkakoa da. Baina gogoratu, egiak ez duela barkamenik ekartzen berarekin. Beraz ez dut barkamenik eskatuko... Baina gogoratu besteak beste bizitza ere antzerki bat dela ala ez? Nork dio kontrakoa?

LABUR

Gaur egingo dute presoan aldeko hileroko bilkura

Datorren astean Aste Santua dela eta, oraingo astean egingo dute Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean hileroko egiten duten bilkura.

Betiko moduan, iluntzeko zortzietan hasiko dute bilkura, herriko plazan.

Datorren hileko bilkura, ordea, ohiko egunean egingo dute, hau da, hileko azken barikuan.

Aurrerantzean ere preso-en eskubideak eskatzeko bilkurak egiten jarraituko dute, la azaldu dute antolatzaileek.

ELKARRIZKETA

XABIER ARANGUREN/DEBABARRENA TALDEKO ZIKLISTIA

“Lehendakari rankingeko hamabost lehenengotan geratzia da helburua”

O.E.

Eibarko Debabarrena taldeak hasi dau aurtengo denboraldixa. Xabier Aranguren elgetarra da taldeko beteranuetako bat. Amateur maillako bigarren denboraldixan aurrekaldian egotia izango da Xabierren helburua.

Iazko denboraldixan istripu dexente euki ziñuzen. Hala eta be, nahiko denboraldi txukuna egin ziñuan?

Bai. Hasieran, istripu baten ondorioz, hillabete egon nitzan bizikletan ibiltzeka, eta gero ezin izan neban hasieran neukan sasoi hartu. Hala eta be, lehenengo urtia izateko gustora amaittu neban denboraldixa.

Aurten be, Eibarko Debabarrena taldian ibilliko zara. Zelan ikusten dozu taldea?

Talde oso gaztia gara. Taldekidiak Bizkaikuak, Eibarkuak, Bergarakuak eta Zaldibiakuak die, eta oso gustora dihardut. Danera hamabost ziklista gabiz eta Juanjo Sebastian da zuzendarixa. Taldeko zaharrena naiz, beste batekin batera.

Zelan doa aurtengo denboraldi hasieria?

Donibane Garazin ekin zotsagun denboraldixari. Ondiokan ez nago onenian, baiña oin arte egin dakuakin oso gustora nago. Ia sasoi hartzen juaten gazen. Zeintzuk die aurtengo denboraldirako helburu nagusixak?

Lehendakari rankingian hamabost lehenengotan geratzia pozik egoteko modukua izango litzake. Horretan saiatuko gara, aurten bigarren urtia da-eta. **Parte hartuko dozuen lasterketa garrantzitsuenak zeintzuk izango die?**

Aurreko astian, Lasarten izan giñan, Espainiako Kopan. Balentziaga, Gorla eta Bidasoako Bira be inportantiak izango die. **Oin arteko lasterketetan zer postu lortu dittuzu?**



O.E.

“Aurtenguan talde oso gaztia daukagu; ondiokan ez nago onenian, ia formia hartzen dodan”

Atarrabian 62. geratu nitzan; Lasarten, azkenengotan, erretiratu biharra euki neban; Donibane Garazin profesional batzuek parte hartu zebe eta 49. amaittu neban; Gorlan, aldiz, atzean. **Zortzi urte daroiaz ziklistuan. Zein izan da goguan**

“Pisu txikixa daukadanez, mendiko lasterketan ibiltzen naiz benetan gustora”

daukazun momentu onena? Duda barik, gazte maillan Arraten lasterketia irabazi nebanekua da momentu onena. **Ziklista moduan nun ibiltzen zara gustoren?** Pisu txikixa daukat, eta mendiko lasterketak dittut gustoko.

KIROLA

Sei urte beteko ditu gaztetxeak zapatuan

O.E.

Zapatuan, gaztetxe kanpoaldean egingo duten bazkaria izango da herriko gazteak seigarren urteurreneko ospakizun nagusienean batuko dituen ekintza. Hilabetean barrena era askotariko ekintzak antolatu dituzte, eta zapatua euren dako gorde dute.

Gaztetxearen seigarren urteurreneko ospakizunak amaierara heldu dira. Aspaldiko partez, era askotariko jarduerak izan ditugu hilean barrena. Aurrerantzean ere hainbat jarduera antolatu jarraitzeko asmoa azaldu dute herriko gazteek.

Aurretik, ordea, egun osorako festa izango da zapatuan. Egurdi aldean, txikiteoa egingo dute, trikitalariek lagunduta.

Gero, eta eguraldiak laguntzen badu, bazkaria egingo dute gaztetxe ondoko lautadan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian izango da bazkaria.

Bazkalosterako, jokoak antolatu dituzte gaztetxe kideek. Joko horiekin, arratsaldea girotzea da asmoa.

Bukatzeo, gauean, Kataluniatik etorriko diren Rubers 28 eta Ensaladilla Sound Sistem taldeek kontzertua eskainiko dute. Talde horietan Pomada eta Dusinghet taldeetako partaideek hartzen dute parte. Hortaz, aurten erè, ska, reggae eta eritmo mestizoak nagusituko dira herriko gaztetxean.

Hilabete osoan antolatu dituzten ekintzetan izan den parte hartzearekin pozik daude gaztetxeak, eta aurrerantzean bide horretan jarraitu nahi dute.



O.E.

Egun osoan barrena giro paregabea izango da gaztetxe seigarren urteurrenean.

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

BOLATOKI
taberna-jatetxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84



BOLINAGA
METALAK

**SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01**

ERRETRATUZAHARRA

San Martzialgo
erromerian,
1958. urtean

Bergarar guztiek ezagutzen dute San Martzialgo erromeria. Aspalditik datorren ohitura da, eta urterik urtera gero eta jende gehiago elkartzen da San Martzialgo zelaietan. Jeneralean uztaileko lehen domekan ospatzen da, baina aurten, San Martzial eguna domeka izango denez, ekainaren 30ean izango da ospakizuna.

Oraingo asteko erretratua 1958. urtekoa da. Orduan ere herritar ugari batzen zen San Martzialen, eta gaur egun moduan, jai giroa izaten nagusi. Programari dagokionez, ez da aldaketa handirik izan. Ohiko gurdi igoera, meza, dantza saioak, herri jolasak eta dantzaldia egin izan dira beti.

Argazkian ikus daitekeenez, gizonzkoek alkandora zuria janzteko ohitura zeukaten eta ardo-txanbila eta zahatoa ere ezinbestekoak ziren. Argazkikoek 23-25 urte izango zituzten 1958. urtean. Honako hauek agertzen dira erretratuan, umore giroan, ezkerretik eskumara:

Atzean: Angel Elkoro, Patxi



Azkarate, Jabier Juaristi (aurrerago), Jesus Arregi, Jose Luis Etxaniz eta Jose Aranguren.

Aurrean: Luis Olabe, Marcos Altuna (etzanda dagoena), Antonio Azkarate eta Jose Morras.

Argazkia: Jose Morras.


ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Agur Maltzaga-
Gasteiz
trenbideari

Berrogei urte inguru igaro dira alboko bi irudien artean, eta herrian izan den aldaketa sakona begibistakoa da. Maltzaga-Gasteiz trenbidea, esaterako, 1960ko hamarkadaren amaieran desagertu zen eta Lasagabasterko lantegia, berriz, 1984. urtean itxi zuten. Beste hainbat lantegi egon ziren tokian etxebizitzak eraiki dituzte, eta ingurua erabat aldatu.



≈ 1963

Trenbidea eta Lasagabaster ehungintza lantegia ikus daitezke Juan Idigorasen argazki honetan (Bergarako Udal Agiritegia).



2002


Ibargarai hiribidea erabat aldatu dute azken urteotan. Lehen zeuden hainbat eraikin bota eta etxe berriak eraiki dituzte hiribide horretan.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK


Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzailendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzailendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



URKIOLA jantziak
GABILONDO puntuzko jantziak
GALARRETA oinetakoak
ZUBIKUA jantziak
JOLAS jantziak eta opariak
GANTXEGI mertzeria

UDABERRIRAKO ETA UDARAKO BEHAR DUZUNA



believe it
seventythreejeans

Pepe Jeans
LONDON

udaberrian eta udan ere jantzi zaitez geurean



Otalora z/g.
943 79 82 68
ARRASATE



Barrenkalea 35
943 76 29 46
BERGARA



Irala 5
943 76 27 16
BERGARA